

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Bigarren Hezkuntzako hiru ikasle arin zauritu dira Ibirikun mikrobusa irauli ostean

Agoitzeko ikasleak Iruñerriko institutueta zeramatzan autobusa bidetik atera da NA-150 errepidean Ibirikun

Osteguna, 2019.eko urtarrilak 24

Bigarren Hezkuntzako hiru ikasle arin zauritu dira Iruñerriko institutueta zeramatzan mikrobusa irauli ostean. Gidariak ibilgailuaren kontrola galdu du elurretan irrist egitean NA-150 errepidean goizeko 07:20ean Ibirikun.

Oroz enpresako mikrobusa, Agoitzeko ikasleen gurasoek kontratatua, Agoitz eta Iruñea arteko bidea egiten ari zen. Arin zauritutako gazteak Nafarroako Ospitale Gunera eraman dituzte. 16 eta 17 urteko A..E.A eta I.G.C ikasleek kontusioak izan dituzte eta 16 urteko O.O.Ak lepauztaietan apurdura. Hiruak NOGen balorazio prozesuan daude eta aurki alta jasoko dute.

Mikrobusean guztira Iruñeko Plaza de la Cruz BHI, Basoko BHI, Cuatro Vientos BHI eta Salesianos ikastetxeko eta Barañaingo Alaitz BHIko 7 ikasle zihoazen.

Bertaratutako baliabideak

Istripuaren gunera oinarrizko anbulantzia bat eta medikalizatutako Nafarroako Suhiltzaileen zerbitzuko anbulantzia bat bertaratu dira, suhiltzaileen beste bi patruila eta Foruzaingoren bi patruilekin batera.



Ibirikun istripua izan duen mikrobusaren irudia.